

HezkiErak

Gazteei zuzendutako udalen esku hartzeak definitzeko eta martxan jartzeko gakoak.

*Tokiko inpaktu hezkidetzailea
ikuspegi global batetik*

HezkiErak:

Euskarazko hitz-jokoa da,
-Hezkidetza- eta -Erak-
uztartuz eraiki baita.
Hezkidetza egiteko modu
desberdinei eta hezkidetzaren
ikuspegi horretan **NOLAK**
duten garrantziari egiten die
erreferentzia.

Creative Commons



CC BY-NC-SA 4.0 DEED

Attribution-NonCommercial-ShareAlike 4.0 International

Lan-taldea

Sorginlore Gizarte Elkartea
eta Ikertze Kultur Elkartea



Itzulpena

Irakurketa Erraza

Diseinua eta maketazioa

TaPuntu

Erakunde laguntzaileak



LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

→ AURKIBIDEA

1. Sarrera	5
2. Helburua	6
3. Norentzat	8
4. Zergatik	9
5. Ingurune eta herri hezkidetzaileak eraikitze, barneratzeko eta bizitzeko INPAKTU MAILAK ETA EDUKI-MULTZOAK	12
6. Ingurune eta herri hezkidetzaileak eraikitze, barneratzeko eta bizitzeko GAKOAK	15
6.1. GALDERAK	17
6.2. ADIBIDEAK	21

1 → SARRERA

Dokumentu honen lanketa kokatzen da *HezkiErak*¹. *tokiko eta maila globaleko ikuspegiko eraikuntza kolektiboa hezkidetza-inpaktu baterako*, proiektuan. Proiektu hori gauzatzen dute Sorginlore Gizarte Elkarateak eta Ikertze Kultur Elkarateak, eLankidetzak, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren laguntzarekin. Proiektu hori tokiko eta maila globaleko ikuspegia² duten hezkidetzaren eta pedagogia feministen aldeko laneko prozesu iraunkor baten jarraipena da.

Prozesu horretan aldeaz aurretik 2 **material** sortu dira. Orain aurkezten dugunaren osagarritzat har daitezke. Honako hauek dira:

- *HezkiErak. Modu hezkidetzazilean lan egin nahi duten hezitzaileentzako orientabideak*. Gazteen hezitzaileen barruko lanean ardaztuta, hezitzailearen zeregina hezkidetza begirada oso batetik berraztertze.
- *HezkiErak. Inpaktu hezkidetzazilea lantzeko tresna*. Gazteekin lanean alderdi zehatzak antzematea errazteko, galde-sorta baten bidez. Halaber, hezkidetzako esku hartzean lortu nahi den inpaktu pentsatzeko.

HezkiErak. Gazteei zuzendutako inpaktu hezkidetzazilea duten udaleko esku hartzeak definitzeko eta martxan jartzeko gakoak, materialarekin jada sortutako eremuetatik abiatzen gara eta zehazki udalei zuzentzen diegu. Fase honetan ere, Costa Ricako erakundeekin dugun loturak garrantzitsua izaten jarraitzen du, bereziki, Bakerako Gizarte-Etxeekin (Centros Cívicos para la Paz, CCP)³ dugun harremana.

¹ HezkiErak: Hezkidetza egiteko Erak, hitz joko honen bitartez Hezkidetza eta Erak hitzak lotzen dira. Horrela hezkidetza egiteko hainbat moduak adierazten dira. Baita hezkidetzako etorkizun horretan "nola" egiteak duen garrantzia ere.

² Elkarri lotutako eta elkarrekin konektatutako mundu batean bizi gara. Hori dela eta, beharrezkoa da hurbileko errealitateak aztertzea eta interpretatzea, eta lotzea berdintasunik eza, justiziarik eza, bazterkeria eta naturaren instrumentalizazioak markatutako gizarteak sortzen dituzten egiturazko dinamika globalekin. Tokiko-mundu mailako ikuspegiaren bidez bultzatzen da GEHren (gizarte-eraldaketarako hezkuntza) hausnarketetan eta jardunbideetan hauei buruz sakondu dadin: sistemaren elkarren mendeotasunak, justiziarik ezaren eta berdintasunik ezaren egiturazko zergatiak; bidegabekeriaren eta borroken tokiko eta mundu mailako eraginak; eta borroka horien erronken eta partekatutako erronken erantzukidetasuna. Hori guztia mundu mailako herriartasun ikuspegitik. Habian 2030. Gizarte-Eraldaketaarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia..

³ Centros Cívicos por la Paz (CCP) zentroak komunitateak eta komunitatearentzat sortutako lekuak dira, bereziki, 0 eta 18 urte bitarteko haurrentzat, nerabeentzat eta gazteentzat. Toki fisiko horietan estrategia bat ezartzen da indarkeria prebenitzeko, herritarren elkarbizitzarako gaitasunak indartzeko eta garatzeko aukerak sortzeko heziketaren, teknologiaren, artearen, kirolaren eta aisialdiaren bidez. Costa Ricako Justizia eta Bake Ministerioak bultzatzen ditu, ezartzen diren kantoietako udalekin lankidetzan. Bertan modu aktiboan parte hartzen dute Kultura eta Gazteria Ministerioak, Zientzia eta Teknologia Ministerioak, Instituto Costarricense del Deporte, Instituto Mixto de Ayuda Social, Red de Cuidadores bitartez, Instituto Nacional de Aprendizaje eta Instituto sobre Alcoholismo y Farmacodependenciak. Beraz, erakunde arteko koordinazio sendoarekin adibide ona dira. Gaur egun, 7 zentro osatzen dute sarea, eta beste 9 zentroen plangintza eginda dago. Baztertuen dauden kantoietan kokatzen dira, gizarte- eta ekonomia-adierazle batzuen arabera.

2 → HELBURUA

HELBURU OROKORRA:

Hezkidetza-inguruneak sor daitezela bultzatzea, hau da, hezkuntzako, familiako -esanahia zabalenean-, gune afektiboak eta publikoak. Bertan, pertsona eta kolektibo guztiek bizi ahal izan ditzaten bizitza eta elkarbizitza askeak, bidezkoak, seguruak, itxaropentsuak, solidarioak eta jasangarriak. Hori guztia, pertsona eta kolektibo horien genero-identitatea eta identitate hori zeharkatzen duten beste alderdiak edozein direla ere.

HELBURU ZEHATZA:

Euskal administrazio publikoei tresna bat ematea genero-berdintasuna bultzatzeko betebeharra betetzen laguntzeko. Zehazki, gazteei zuzendutako inpaktu hezkidetzailea duten esku-hartzeak definitzeari eta martxan jartzeari dagokionez.

Helburua: Inpaktu hezkidetzailea

Inpaktu hezkidetzailea generoaren araberako desberdintasun arrakalak gutxitzen dituen eragina da, honako hauetatik abiatuta:

- Eginkizunei, tokiei, botereari, balioari, zilegitasunari eta bizi-espektatibei dagokienez, arrakala horiek zalantzan jartzea eta kontzientzia handiagoa izatea, tokiko eta maila globaleko irakurketa feminista kritiko batetik.
- Jarrera eta portaera aldaketa, normatiboa eta naturalizatua gainditzeko irekitasun, askatasun, ahalduntze eta ahizpatasun handiago batean islatzen dena, genero disidentziez ikasten.
- Partaidetza aktiboa hezkidetza inguruneak (iruditeriak, izateak, tokiak eta elkarbizitzak) taldean eraikitzean eta hedatzean.



Inpaktu hezkidetzailea hurrengo eduki-multzo hauetan bilatzen dugu:


Oinarrizko kontzeptuak eta sinismenak


Pertsonen arteko harremanak


Komunikazioa


Espazioak

3 → NORENTZAT

Tresna tokiko administrazioei zuzentzen zaie.

Tresna tokiko administrazioei zuzentzen zaie. Identifikatutako gakoak hainbat modutan gauzatuko dira, horien tamainaren eta egituraren arabera.

Hauei zuzentzen zaie: bai politikariei, neurri handi batean haien borondatearen eta ausardiaren esku baitaude, ikuspegi eta bide berrien izaera eraldatzailea eta esplorazioa; bai teknikariei, haien egiten jakitearen eta herritarrekiko eta herritarren errealitate eta posizio anitzekiko eta desberdineko hurbiltasunaren esku baitaude prozesuen egokitasuna eta iraunkortasuna.

Berdintasuna bultzatzea eta hezkidetza inguruneak sortzea arlo askotatik egin daitekeela eta egin behar dela uste dugunez, erakundeen barruko eta arteko zeharkakotasunaren eta lanketa osoaren aldeko apustua egiten dugu. Horregatik, nahiz eta berdintasunak eta gazteriak pisu zehatza izan ikuspegi honetan, tresna hau udaletako sail eta zerbitzu guztietan baliozkoa izan daitekeela uste dugu.

4 → ZERGATIK

Galdera horrek 2 erantzun ditu:

Tokiko administrazio publikoen eginkizuna:

Lehenengo, aipatu behar dugu EAEko tokiko administrazio publikoek berdintasuna eta gazteria bultzatzeko legezko betebeharrak bat dutela:

- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena⁴.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia⁵.
- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Osorik Babesteko⁶.
- 2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, gazteriaren legea⁷.

Funtsezkoa da lege-eremu hori konpromiso politiko batean islatu dadila.

Honekin batera, uste dugu, orokorrean udal ekintzak benetako irismen esanguratsua duela herritarren bizitzan eta nortasun bateratua eraikitzean. Eta irismen hori oso positiboa izan daiteke belaunaldi eta kultura arteko berdintasun eta elkarbizitza feminista sortzean.

Eragiteko eta erreferentzia izateko ahalmen horrek zeregin hezitzaile bat - heziketa ikusmolde zabal bezala ulertuta⁸ - ematen dio tokiko erakundeari. Horregatik, funtsezkoa da zein den tokiko erakundearen intentzionalitatea eta praktikan jartzeko moduen koherentzia ere.

Antzeman den beharra

Hainbat forotan eta hainbat administrazioarekin harreman zuzena izanik, bai EAEn, bai Hegoalde globalean, argi geratu da zaila dela genero-berdintasuna zeharkako egitea, batez ere, komunikazio eta lankidetzak gutxi dagoela arloan eta zerbitzuen artean. Era berean, helduzentrismoa gainditzearen garrantzia ikusi da. Azkenik, erreferentziazko adibideen eta jarraibideen eskaera egiaztatu da.

Horregatik, alderdi horietan aurrera egiteko tresna bat aurkezten dugu.

⁴ 1. Titulua. 1. Kapitulua. 7. artikulua.– Toki Administrazioa.

1. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, eta lege honen helburuetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eginkizun hauek bete behar dituzte, bai banaka, bai partaide diren mankomunitate, kuadrilla edo elkarte bidez edo lege honen xedeetarako eratzen dituztenen bidez.

⁵ Udalek berdintasunerako planak onartuko dituzte, Berdintasunerako Estrategian ezarritako esku-hartze ildoan eta jarraibideen arabera (Berdintasunerako Legearen 16.3 artikulua).

⁶ Administrazio-jardunaren printzipio gidari gisa jasotzen da adingabeak babestea edozein indarkeria-motatik, genero-indarkeriatik, gizakien salerosketatik eta trafikotik eta emakumeen genitalen mutilazioetik.

⁷ Udal-eremuari dagokionez, udalek berezko eskumenak balia ditzakete «gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea» arloan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluko «Udalerrien eskumen propioak» 36. atalaren arabera. 45. artikulua. Gazte taldeak. Gazte taldeak dira nortasun juridikorik izan gabe gazteek osatu eta aurreko artikuluan jasota ez dauden taldeak. Toki-administrazioek eta tokiko eta lurraldeko gazteriaren kontseiluak haien ordezkaritza erraztuko dute tokiko partaidetza-guneetan, eta, ahal den neurrian, laguntza emango diete haien ekimenei.

⁸ Ez genuke "hezkuntza" orokorrean hitz egin behar, osotasun berdina eta mundu-mailan homogeneoa balitz bezala. Nire ustez, "hezkuntza-prozesuez" hitz egin beharko genuke: ikasketa- eta irakaskuntza-prozesuez; ezagutzak, gaitasunak, trebetasunak, jarrerak eta balioak eraikitzeak eta berregiteko prozesuez; sozializatzeko, elkartzeko, sentsibilizatzeko eta aurkitzeko prozesuez; zalantzan jartzeko, bilatzeko eta baieztatzeak prozesuez; identitateak identifikatzeko eta aitortzeko prozesuez... Askotarikoak eta alderdi askotakoak izango diren prozesuak: banakakoak, taldekoak, kolektiboak eta masiboak. Prozesu formalak, ez-formalak, informalak. Beti historiako eta gizarteko testuinguru batean eta testuinguru teoriko zehatz jakin batean egingo diren prozesuak. Azken batean, beti bizitzarekin eta haren gorabeherekin lotuta dauden hezkuntza-prozesuak. Oscar Jara.

Nola egin dugu

Dokumentu hau oinarritzen da Gipuzkoako eta Costa Ricako administrazio publikoen arteko gogoeta-
ren eta esperientzien eta ezagutzen trukearen prozesutik ateratako ikasketan.

Prozesu horretan parte hartu dute:

→ Gipuzkoa:

- **Aiako udala:** Gazteriako teknikariak.
- **Donostiako udala:** Garapenerako lankidetzako, gazteriako eta berdintasuneko teknikariek.
- **Orioko udala:** Turismo, merkataritza eta ostalaritzako teknikariak.
- **Zumaiako udala:** Hirigintzako teknikariak.

→ Costa Rica:

- Bakerako Gizarte-etxeek (CCP):
 - Costa Ricako Gobernuak **Justizia eta Bake Ministerioko** Bakea eta Herritarren Elkarbizitza Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusia.
 - **CCP Cartago**
 - **CCP Guararí (Heredia)**
 - **CCP Garabito (Jacó)**
- Herediako Udala. **Gizarte Kudeaketa Inklusiboko Bulegoa, Gizarte ongizatea** eta gizarte-progr-
mak, Berdintasun, Ekitate eta Genero Bulegoa, Turismo atala, Kultura kudeatzeko atala, Bideak
kudeatzeko atala.
- **CETAV**, La Libertad parkeko Teknologia eta Ikusizko Arteen Zentroa.
- **Cenderos:** Etorkinen Gizarte Eskubideen Zentroa.
- **Colectiva Caminando:** Feminismoak, Arteak, Performancea, Komunikazio feminista, Kale-irratia
eta Hilekoaren hezkuntza.

Prozesuan egin dira:

- 3 talde-saio barnean dauden euskal udaletako teknikarien artean.
- 4 bilera, 3 bisita, 2 gazteen aurkezpen eta 6 barruko lanerako talde-saio parte hartzen duten CCP-etako talde osoekin (Costa Ricara egindako taldeko bidaian zehar).

Erakunde guztiei eskertzen diegu prozesuan izandako konfiantza eta genero-berdintasunaren eta elkarbizitzaren alde egin duten apustua. Baita parte hartu duten pertsona guztiei izandako konpromisoa, jarrera irekia eta eraikitzailea eta egin dituzten ekarpen guztiak. Dokumentu hau hausnarketa, subjektibitate eta esperientzia profesional horien guztien emaitza da. Hala ere, azken erantzukizuna Sorginlorerena da.

Dokumentua horrela antolatuta dago:

- Sarrerako atala: sarrera, helburuak, eta norentzat, zergatik eta nola egin da.
- Eduki-multzoak eta inpaktu mailak: Inpaktu hezkidetzaile bat izan ditzaketen eduki-multzoak eta mailak azaltzen ditu (*Inpaktu hezkidetzailea izateko tresna* dokumentuan jada proposatutakoak).
- Gakoak: tokiko administrazio publikoetatik genero-berdintasunean eta elkarbizitzan aurrera egiteko gakoak zerrenda. Baita gako horien bi ezarpen praktiko ematen dira:
 - Norberak hausnartzeko eta eraginkor bihurtzeko galderen proposamena.
 - Inpaktu hezkidetzaileari begira, udaleko esku-hartzeak definitzearen eta martxan jartzearen adibide praktikoak.

5 → INGURUNE ETA HERRI HEZKIDETZAILEAK ERAIKITZEKO, BARNERATZEKO ETA BIZITZEKO INPAKTU MAILAK ETA EDUKI-MULTZOAK

Esan dugun bezala, erakunde publiko gisa eta erantzukizunaren, eraginkortasunaren eta jasagarritasunaren begiradatik, funtsezkoa da hasieratik galdetzea gauzak zertarako egiten ditugun, zer bilatzen dugun, zer eragin lortu nahi dugun.

Kasu honetan, gure intentzionalitatea da hezkidetza inguruneak eraikitzea, barneratzea eta bizitzea, hau da, elkarbizitza feminista batean. Testuinguru honetan, proposatzen ditugu udalak politiken, programen, ekintzen eta laguntzen bidez eragin dezakeen mailak eta eduki-multzoak. Denak dira garrantzitsuak. Funtsezkoena da zehaztea gure udalerrian zein den esanguratsuago edo estrategikoago, une zehatz honetan zeini ekin behar diogun baldintzak sortzen joan daitezen, ondoren, agian beste mailei edo alorrei ekin ahal izateko.





Mailak ez dira iragazgaitzak, ezta linealak ere nahitaez: elkarrekin eraikitzean kontzientzia kritikoa handitzen doa. Berrelikatu egiten dira. Kolektiboa dena, dimentsio proaktiboan eta sortzailean, presenteago dago hirugarren mailan. Hala ere, kontzientzia kritikoa eta jarrera- eta portaera-aldaketa norbanakoan gerta daitezke, baita taldean edo erakundeetan ere.

Bestalde, alorrak gurutzatu egiten dira. Horrela, adibidez, toki publikoetan esku hartzeak harreman osasuntsuak erraztu ditzake, edo komunikazioan esku hartzeak gai normalizatuak edo naturalizatuak desagitea eragin dezake.

Ingurune
hezkide-
tzaileak

		MAILAK		
		 Kontzientzia kritikoa ⁹	 Jarrerak eta portaerak ¹⁰	 Taldean eraikitzea ¹¹
EDUKI-MULTZOAK	 Oinarrizko kontzeptuak eta sinesmenak	Generoa egokitzearen normalizazioaren eta naturalizazioaren kontzientzia: balioa, eginkizunak, estereotipoak, nahia, bizi-proiektuak, berdintasunaren irudikeria. Intersekzioaren kontzientzia barneratutako eta egiturazkoak diren zapalkuntzaren, arrazismoaren, klasismoaren eta kapazitatearen ardatzekin.	Aurrekoa zalantzan jartzea. Disidentzien garrantzia nabarmentzea, ezagutaraztea eta onartzea. Autodefentsa feminista. Maskulinitate ez hegemonikoak.	Pertsonen, kolektiboen eta mugimendu kritikoen artean aliantzak sortzea. Narratiba eta iruditeria emantzipatzaileak eraikitzea eta zabaltzea. Kontsumo-ereduaren eta sexu-genero sistema errepikatzearen arteko loturak argitzea.
	 Komunikazioa	Komunikazioaren ahalmenaren, erabileraren eta kontrolaren kontzientzia.	Komunikazioa bera berraztertzea. Esperimentatzea. Komunikazio ez sexista eta inklusiboa aukeratzea eta bultzatzea.	Erreferentziak identifikatzea/ezagutaraztea. Kontaketa sortzea. Komunikazio-kanalak hartzea.
	 Pertsonen arteko harremanak	Indarkeriei, boterearen asimetriei, desira/desiragarritasuna sortzeko sozializazio prozesuaren eraginari eta harreman-dinamikei edo ereduiei buruzko kontzientzia.	Aniztasunera irekitzea eta elkarrizketatik hurbiltzea. Bortitza ez den komunikazioa aukeratzea. Autonomia, norberaren kontzientzia, ingurunean mugak jartzea.	Elkarbizitzaren dekalogo, aisialdiaren eta ospakizunen eredu alternatiboak, genero aginduetatik kanpo bizi-proiektua izateko benetako aukera sortzea. Salaketa eta erreparazio kolektiboa.
	 Pertsonen arteko harremanak	Toki publikoen (irekiak eta itxiak), fisikoaren eta digitalen diseinuak, antolaketak eta zaintzak duen ezaugarri ez neutralari buruzko kontzientzia. Baita toki horien erabileran eta bizipenean dauden desberdintasunei buruzko kontzientzia.	Neutritasuna, eraginkortasuna eta erabilgarritasuna zalantza jartzea. Entzute eta behaketa aktiboa. Tokiak uztea. Tokiak hartzea.	Tokiak berraztertzea, diseinatzea, eraikitzea eta bizitzea kulturen eta belaunaldien arteko elkarrizketa feministatik. Erabilerak eta antolaketak probatzea.

⁹ Genero-arrakalei buruzko kontzientzia handiagoa, tokiko-mundu mailako irakurketa kritiko feminista eta intersekzional batetik eginkizunei, tokiei, botereari, balioari eta bizi-itxaropenei dagokienez.

¹⁰ Zalantzan jartzean islatzen den jarrera-aldaketa, bai eta askatasun, ahalduntze eta ahizpatasun handiagotik sortutako portaerak ere, normatiboa eta naturalizatua dena gainditzeko – genero-disidentzietatik eta tokiko beste kolektibo minorizatu batzuetatik eta Hegoalde globaletik ere ikasita –.

¹¹ Parte-hartze aktiboa taldean eraikitzean eta narratiba, iruditeria, izate eta elkarbizitza emantzipatzaileen, ekitatiboen, itxaropentsuen, seguruen, askeen, solidarioen eta iraunkorren hedatzean.

6 → INGURUNE ETA HERRI HEZKIDETZAILEAK ERAIKITZEKO, BARNERATZEKO ETA BIZITZEKO GAKOAK



Gure lanari buruz:
udalerrriaren zerbitzura



Gizarte egiturarekin, udalerrian kezkutzen, emozionatzen duenarekin eta gertatzen denarekin: *hurbiltasuna*



Sailen eta zerbitzuen artean:
elkarrizketa eta koordinazioa



Gure udalerriko herritarrengan pentsatzean:
interseksionalitatea



Erakundeen artean:
elkarlana



Estrategikoan eta operatiboan: *intentzionalitate feminista eraldatzailea eta planifikazioa*




Gazteriari dagokionez:
*subjektua*¹²



Ebaluaziorako:
inpaktu adierazleak

¹² Pertsonak, kasu honetan gazteak, subjektu gisa hartzea, objektu gisa (ikerketetan, ekimenen eta programen onuradun moduan....) jartzen dituen ikuspegia gaingiditza da. Pertsonak ulertzea eta haiekin harremanak izatea esan nahi du, izaki senti-pentsatzaile direnez, jarduteko, eragiteko eta eraldatzeko gaitasuna izanik. Ikuspegi hori funtsezkoa da herri-heziketan. Bestalde, 1989ko azaroaren 20ko Nazio Batuen Konbentzioak eskubide zibilak eta politikoak ematen dizkie haurrei eta gazteei, eta, besteak beste, elkartzeko eta parte hartzeko eskubidea aitortzen zaie.

Garrantzitsua da gako hauek presente izatea gure esku-hartzearen fase guztietan:



Jasotako gakoak erronkak dira aldi berean, kasu gehienetan oraindik konpondu gabeko erronkak. Ez daude jardute idealak eta itxiak. Hala ere, beste egiteko moduak bultzatzearen eta martxan jartzearen aldeko apustu politikoen eta teknikoen bidez, gako horiek esperimendatzeko eta hobetzeko jarraibideetan gauzatzen dira, berdintasuna eta elkarbizitza eraikitzean aurrera egiteko. Gaeleanok zioen bezala: “Utopia etorkizunean dago.

Bi urrats oinez egiten ditudanean, utopia bi urrats urruntzen da eta etorkizuna hamar urrats harago urruntzen da. Orduan zertarako balio du utopiak? Horretarako balio du, oinez ibiltzeko.” Eta ildo berean, Federicik dio: “Ezin dugu itxaron mundua aldatzea. Orain beste mundu bat eraikitzen hasi behar dugu, bizi garen tokietan, ditugun tresnekin, ehuntzen ditugun sareekin. Egitean sortzen dugu **etorkizuna**.”¹³

¹³ **Silvia Federici** (*El patriarcado del salario* eta *Reencantar el mundo* liburuetan jasotakoak bezalako hitzaldietako parafrasia, bere pentsamenduarekin zehatza dena).

6.1. Galderak

Gakoak zehazten...	Nire lekuan...
1 NONDIK ABIATU	
Zehaztutako diagnosi batetik abiatu. Oso tokiko begirada eta mundu mailakoa ere duen diagnosa. Hauek lortzeko: - Interpretazio partekatua eta azterketa osoa. - Esku hartzea esanguratsuagoa, egokiagoa, eraginkorragoa eta iraunkorragoa. - Inplikazio handiagoa aplikazio- eta inplementazio-fasean.	
→ Hainbat sailen eta zerbitzuen parte hartzea bilatzen al dugu? → Gazteen parte hartzea bilatzen al dugu? Zein gazteena zehazki? • Kontziente al gara gazteria anitza eta heterogenoa dela? • Banakako eta antolatutako (modu formalean edo informalean) gazteek parte hartzen al dute? → Udalerriko gizarte eragile aktiboen parte hartzea bilatzen al dugu? • <i>Hurbildu. Ez etortzera deitu, baizik eta atez ate joan, komunitateko liderren edo erreferentzien bidez. Idazmahaiko funtzionarioa ez izaten saiatu¹⁴.</i> • <i>Udalek herritarren tokiak inbaditzen dituzte, publikoa dena. Orduan, herritarrei galdetu behar zaie, tokiak nola kudeatu eta egin nahi denari buruz berri eman behar zaie.</i> → Orokorrean, eta gazteei buruz, talde minorizatuen diagnosiak eta proposamenak bereziki kontuan hartzen al ditugu? Hala nola, emakumeak, LGTBI+ taldekoak, arrazializatuak, dibertsitate funtzionala edo neurodibergentzia dutenak, baztertutako auzoak, herri ijitoa, kolektibo prekarizatuak...?	Zer diagnosi ditugu? Zeri buruzkoak? Noizkoak dira? Nola egin dira? Gai bati buruzko zehaztutako diagnosi osoa eta eguneratua egiteko aurrekontua egin al dezaket? Nor sartu beharko nuke? Nola lortuko dut? Zer koordinazio-bide ditugu udalaren barruan? Zein eragile ezagutzen ditugu? Zein kolektiborekin ez dugu harremanik? Ba al dago emakume-talderik eta LGTBI+ talderik? Non mugitzen dira gazteak? Antolatuta al daude? Ezagutzen al ditugu hainbat kolektiboetako erreferentziazko pertsonak edo liderrak?
Udaleko helburu orokorrak oinarritzea, kulturarteko elkarbizitza, benetako partaidetza eta gazteria subjektu dituen ikuspegi feminista batean	
→ Batzuetan ikusten dira ikuspegi alarmistak, punitibistak, genero-desberdintasunen negazionistak, status quo-aren kontserbadoreak, erresistentzien aurrean erreaktiboak, helduzentristak. Guk nondik proposatzen ditugu udalaren helburu orokorrak, estrategiak eta ekintzak? Kulturen eta belaunaldien arteko elkarbizitza bultzatzeko eta indarkeriak prebenitzeko ikuspegi feminista batetik? • <i>Erronka da barne dauden erakunde guztiek ikuspegiak barneratzea: gazteen protagonismoa, aurkitzea, berdintasuna, indarkeria prebenitzea..</i> → Tokiko gobernuaren lana guztion onerako komunitateari zerbitzu moduan ulertzen al dugu? • <i>Komunitatearentzako lan egin behar dugu.</i> → Gazteak erabiltzaile edo onuradun bezala ikustetik, gazteak bizitzaren eta udalaren subjektu bezala ikustera pasa al gara? Beraz, subjektu ere politiken, programen eta azpiegituren definizioan (batez ere gazteei zuzendutakoena, baina ez horiena bakarrik). → Benetako parte hartzean oinarritutako gobernantza bultzatzen al dugu? Argi adierazten al dugu parte hartzearen unea (diagnosian, lehenespenean, edukien eta esku hartze moten definizioan, ebaluazioan..) eta maila (informazioa, kontsulta, proposamena, erabakia, autokudeaketa, elkarrekin egindako kudeaketa)?	Nire udalaren antolamenduak bat al datoz hezkidetza-inguruneak eraikitzeak ikuspegiekin? Barneratuta al daude langileen artean? Sailen edo zerbitzuren baten prestakuntza edo laguntza beharko al nuke nire zereginean sartzeko?

¹⁴ Letra etzanean agertzen diren esaldi guztiak Costa Ricako erakundeetako teknikariek prestakuntza-trukerako bidaian helarazitako iruzkinen eta hausnarketen hitzez-hitzeko transkripzioak dira.

Gakoak zehazten...	Nire lekuan...
2 ZERTAN ERAGIN	
Pentsatu udaletatik zein arlotan eta mailatan eragin daitekeen edo eragin behar den	
Diagnosian identifikatutako erronkei lehentasuna emateko unean, aurreko ikuspegietan eta gehienen edo gutxituen hitzetan oinarritzen al gara? Premia, irismen eta egingarritasun irizpideei arreta ematen al diegu? Eragina izango dugun eduki-multzoak eta mailak zehazten al ditugu (ikus 5. atala) modu errealistan, mailakatuan eta asmo eraldatzailearekin? Kontuan hartzen al ditugu bai tokiko administrazio publikoen ardurak eta eskumenak, bai nire udalaren aukera zehatzak? Hainbat alor eta maila aldi berean gurutzatzeko edo lantzeko aukera edo egokitasuna aztertzen al dugu?	Zer erronka identifikatu da lehentasunezko bezala? Zertan oinarritzen da? Une honetan, zer arlori eta mailari ekin behar diogu eta ekin diezaiokegu?
3 ZER LORTZEKO	
Bilatutako inpaktua zehazki definitzea	
Aurretik lehenetsi diren arloei eta mailei dagokienez, zehazki, zer lortu nahi dugu eta norengan? → Ez homogeneizatzea, eragin nahi dugun gazteei buruz argitasuna izatea. → Agian, gazte batzuegan eragiteko, lehenengo hezitzaileengan edo familiengan (esanahi zabalenean ulertuta) eragin behar dugu. Edo arlo batzuetan eragiteko, lehenengo tokiko gobernuan bertan eragin behar dugu. Sortu al ditugu aldaketa neurtzen laguntzen duten adierazleak? → Nahiz eta aldaketez ari garen maila kognitibo-konduktual batean, garrantzitsua da aldaketa horiek adierazle errealistetan, zehatzetan eta egiaztatgarrietan adieraztea. → <i>Neurtzen ez dena, ez da kudeatzen.</i>	Zer inpaktu sor dezakegu, nire ustez? Norengan eragin behar dugu lehenik edo bereziki, nire ustez? Gai al naiz adierazle zehatzak eraikitzeak? Norekin ari naiz fase hau partekatzen?
4 ESKU HARTZEA ZEHATZU	
Esku hartzea definitzea	
Nahiz eta ikuspegi orokorreari jarraitu, eta hurbileko edo urruneko jardunbide egokietan oinarritu, esku hartzea gure udalerriko errealtatera eta dinamikara egokitzen al dugu? → <i>Ereduak eta esku hartzeak tropikalizatzen ditugu.</i> Gazteen hitzak entzuten al ditugu zer esku hartze mota behar eta nahi duten jakiteko? Toki publikoetan, kultura- eta prestakuntza-programazioetan... Eta genero disidentzien eta kolektibo minorizatuen proposamenak? Udaleko ahalmen biziak bultzatzen al ditugu, batez ere bazterretan daudenak? Ez al ditugu oztopatzen eta, hala badagokio, haien ekimenak babestu edo errazten al ditugu? Familiak tartean sartzen al ditugu? Mutilekin lan egiten al dugu? (generoaren sozializazioa, emozioen erabilera, komunikazio asertiboa, adostasuna eta harreman osasuntsuak...). Automatikoki programatu eta egitea saihesten al dugu? Esku hartzearen aldaketak aztertzeari eta gizarteratzeari tokia ematen al diogu?	Egiten ari ginen esku hartzeren batek inpakturik izan al dezake ezarri dugun arloan, mailan eta herritarrengan? Probatu al genezake gazteen eta tokiko taldeen proposamenetakoren bat? Emakumeen Etxea eta talde feministak (emakume gazteenak, arrazializatuak, transfeministak) baldin badaude, zenbateraino hartzen dute parte esku hartzeen definizioan? Zer baliabide ditu nire sailak edo zerbitzuak?

Gakoak zehazten...	Nire lekuan...
4 ESKU HARTZEA ZEHAZTU	
Martxan jartzeko beharrezko alderdiak definitzea	
→ <i>Helburua da eskema mentalak aldatzea eta egoak haustea, beharrei erantzuneko dieten proiektu bateratuak eta egiturak eraikitzeak.</i> Gizartekoez gain, sailen eta zerbitzuen arteko lankidetzak bultzatzen al dugu? Garrantzitsua da Hirigintzan eta Ekonomian bereziki eragitea, desberdintasunak murrizteko azpiegiturak eta baldintzak sortzean duten garrantziagatik. Adibidez: → Turismo sailetik kontaketa aldatzen lagun dezakete, udalerrriaren historian emakumeek izan duten zeregina ikertzen eta ezagutarazten. → Sustapen sailetik tokiko merkataritzari eusten dioten adineko emakumeei eta emakume gazteei lagundu daiteke eta haien garrantzia azpimarratu daiteke, edo lanbide teknologikoetan prekarizatuta dauden emakume gazteentzako prestakuntza bultzatu dezakete. → Ostalaritza sailetik aisialdi testuinguruetan indarkeria matxisten, LGTBI+fobikoen eta arrazisten prebentzioan eragin dezakete. → Hirigintza sailetik toki publikoen diseinu parte hartzailea bultzatu daiteke, bizi daitekeen toki osasuntsu eta komunitarioen kontzeptuan oinarrituta. Gizarte sailen eta zerbitzuen arteko lankidetzak bultzatzen al dugu? → Kultura eta komunikazioa: funtsezkoak dira norberaren hautematean eta jarrearen aldaketan, normalizatutakoari eta estigmatizatutakoari buruzko iruditerian eta kontaketa eragina izateko duten botereagatik. → Kirola: harremanetan eta tokietan duen eraginagatik. Gazteria sailean, zeharkako egiten al dugu hezkidetzak eraginaren asmoa proposatzen ditugun esku hartze guztietan (dantza, antzerkia, irratia, emozioen kudeaketa, jardunaldiak...)? → <i>Artea, dantza eta antzerkia, aisialdirako, nork bere burua ezagutzeko, nork bere burua zaintzeko, estereotipoak hausteko, ongizate emozionala izateko, nire eta gainerakoen kontzientzia, eta komunitatean bizi dugun denboraren eta tokiaren kontzientzia izateko tresna gisa.</i> → <i>Adin horretan gertatzen diren dolu guztiak lantzen ditugu: gorputzeko aldaketak, haurtzaroa uztea, migrazioak, adiskidetasun hausteak, senideen heriotzak.</i> Sail, zerbitzu edo udal batean askotariko intentsitateko esku hartzeak baditugu (aldizkakoak, maiztasun erregularrekoak, iraunkorrak, prozesukoak, zeharkakoak...), asmoan osagarritasuna eta koherentzia bilatzen al ditugu? Erakundearen arteko lankidetzak bultzatzen al dugu? Lerrokatuta dauden erakunde osagarriak identifika ditzakegu, baita dauden tresnak eta ereduak identifikatu ere. Lankidetzan aritzen al gara tokiko eragile aktiboekin ekin beharreko eremuetan? Bereiziki gazteekin/gazteentzat lan egiten dutenekin.	Ezagutzen al ditut genero-berdintasunarekin eta hezkidetzak elkarbizitzarekin lotutako nire udaleko sailen eta zerbitzuen esperientziak, ezagutza, nahiak eta planak? Ba al dago esku hartzeko proposamenik nire ustez nire sailak edo zerbitzuak parte har edo lideratu dezakeenik edo behar duenik? Ba al dut buruan beste sailen edo zerbitzuren bat sartzea gustatuko litzaizakeen esku hartzearen ideiarik? Hortan Berdintasunaren laguntza beharko nukeela sentitzen dut?

Gakoak zehazten...	Nire lekuan...
5 GAUZATU	
Gauzatzeko mekanismoak	
Esku hartzea egiteko unean, koordinazioa eta ardurak banatzeko prozedurak elkarlaneko gobernantzaren eredu bati jarraitzen al dio? → <i>Bakoitza bere atalaren edo erakundearen ardurapean dago, baina hemen modu koordinatuan lan egiten da eta dena taldera eramaten da.</i> Ezartzen al dira zeharkakoaren alde egiten duten mekanismoak? Edo hau gertatzen al da: sistemak emakumeak tratatzen dituen bezala, gobernuak tratatzen dituela genero edo berdintasun bulegoak? Hezkidetza mahaiak ezartzen al ditugu? Gazteak deitzeko unean, erabiltzen dituzten kodeekin, kanalekin eta dituzten erreferentziekin egiten al dugu? Gazteentzat erreferentziazko toki seguruak sortzen al ditugu? → <i>Gazteek sartzean ikusten dute elkarbizitzeko beste moduak daudela.</i> Egiaztatzen al dugu gazteekin lan egingo duen pertsona guztiek –bere espezialitate profesionala eta teknikoak alde batera utzita- hezitzaile rola barneratuta dutela eta, heldu bezala, gai direla toki fidagarria sortzeko? → <i>Taldea trebatuta dago lehen laguntza psikologikoetan.</i> → <i>Irakasleak (arte eta kirol jardueretakoak) espezialistak dira haien gaietan eta komunitatean sustatzaile dira ere.</i>	Esku hartzea definituta dagoenean, nola antolatzen gara? Koordinazio eta adostasun mekanismoren bat al dugu? Badakit nola gazteengana hurbildu? Nire ustez, gazteekin tratatu (koordinatu, irakatsi, dinamizatu, elkar kudeatu...) behar duten udaleko langileek nola erabiltzen dituzte botere harremanak?
Jarraipena egitea	
Etengabeko jarraipen parte hartzailea egiten al dugu, parte hartzen duten gazteen ekarpenei arreta berezia jarrita? Saihesten al dugu diagnosiaren eta egitearen arteko epeak gehiegi luzatzea eta barnean dauden herritarrekin komunikazio irekia mantentzen al dugu prozesua ez hozteko eta frustraziorik ez sortzeko? Programak egokitzen al ditugu etortzen direnen beharretara, hasieran adierazitakoa zorrotz jarraitu gabe?	Arreta jartzen al dut hasieran adostutako ikuspegiek eta inpaktuek esku hartzea gidatzen jarraitzen duten ikusteko? Nire zereginean aukera dut esku hartzea egokitze egokia dela iruditzen bazaigu? Saiatzen naiz gazteekin eta parte hartzen duten erakundeekin beti harremanetan egoten egokitzapen beharrak ulertzeko?
6 EBALUATU ETA SISTEMATIZATU	
Egiten al dugu ebaluazio parte hartzailea eta ezarritako adierazleen arabera eragina neurtzean ardazten dena? Plan operatiboetan eta estrategikoetan adierazitako aldizkakotasunaz gain, ebaluatzen al dugu esku hartzeen iraunkortasuna eta eragina, ezarri ondoren 5-10 urteko epean? Identifikatzen al ditugu ezusteko eraginak? Sistematizatzen al ditugu esperientziak, ikaskuntzak aterata eta kopia daitezkeen ereduak sortuta? Funtzionatu ez duten proposamenak berrikusteko, berriz pentsatzeko eta berritzeko baimena eta aukera ematen al diogu geure buruari?	Esku hartzeen ikaskuntzak biltzen ari al naiz? Nire arloko/zerbitzuko edo beste batzuetako langileekin partekatzen eta eztabaidatzen al ditut? Kontuan hartzen al ditugu berriz programatzerakoan? Egin al da prozesu luzeen ebaluazioren bat?

6.2. Adibideak

Hemen partekatzen ditugun adibideak prozesuan parte hartu duen taldearen hainbat kidek emandakoak dira, bai udaleko teknikariek, bai erakunde bideratzaileak (azken adibidea). Elkarrekin identifikatutako gakoetako batzuk kontuan hartuta, hainbat alor hartzen dituzte (toki publikoa, turismoa, kirola) eta hainbat formatutan egiten dute: hausnarketa, irizpide orokorren zerrendan gakoak eranstea, kasuen deskribapena (hipotetikoa eta benetakoa), eredu taula jarraituta.

1. Zer egingo dugu arkupeekin?

Toki isolatuak (arkupeak, etxabeak, gune isolatuak, ezkutuak...) bilatzen dituzten gazteekin arazoa dago udalerrietan. Toki isolatu horietan pribatutasuna mantendu dezakete, besteen begirada epaitzaileetatik kanpo, garapen pertsonalerako, autoestimurako, autonomiarako, esperimentatzeko eta sozializatzeko. Praktika honek kezka sortarazten du heldu askorengan.

Batzuetan espazio horietan zikinkeria eta zaratak sortzen dira, eta batzuek arrisku sentsazioa ere sumatzen dute. Horregatik, batzuetan, etxetik gertu egoera horiek ikusten dituztenek tokiko administrazioei neurriak hartzeko eskatzen diete, gazteek aukeratutako toki horiek beste gune batera eramateko. Horretarako, maiz eskatzen dute arkupe horiek (normalean erabilera publikoa duten espazio pribatuak) ixtea burdin hesiak jarrita. Eta hesi horiek bazterketa eta ongietorriak ez izatearen sentsazioa sortzen dute besteengan. Itxurazko konponbide horrek hasierako arazoa beste hiriko leku batzuetara eramaten du eta egoera konpondu gabe luzatzen du. Gainera, burdin hesiek are eta espazio gehiago okupatu, gure hiriak are eta gutxiago izango dira bateragarriak, irekiak, ikusgaiak, seguruak eta adeitsuak.

Behar hori berezkoa da gizakiaren garapen pertsonalerako eta administrazioetik logikoa dirudi gazteak entzutea haien beharrak identifikatzeko. Baita behar horiei erantzuteko tokiak eta diseinuak identifikatzeko ere, helduekin talka egin gabe edo kezkarik sortu gabe. Barnean dauden alderdiekin elkarriketarako toki bateratuak sortzeak erraztu egiten du jarduteko jarraibide partekatuak eta adostuak ezartzea. Eta, alde horretatik, laguntzen du administrazioak hezkidetza hiriak sortzeko ikuspegitik gizarte arazoak konpontzeko erantzukizuna bete dezan.

2. Tokiak eta eraikinak eraldatzeko irizpideen kontrol-zerrenda

Taulako 6. atalean azaltzen diren irizpideak hirigintzan erabiltzen diren irizpideetan integratu daitezke toki eta eraikin osasuntsuak, komunitarioak, inklusiboak, seguruak, irisgarriak, zainduak eta biziak lortzeko. Bereziki, antolaketa irizpideetan kokatzen dira.

Antolakuntza-irizpideak

1. Erabiltzaileak identifikatu: gazteak, adinekoak, haurrak, emakumeak, bizilagunak...
2. Beharrak zehaztu:
 - 2.1. Erabiltzaileak eta eragileak entzun: hurbiltasuna.
 - 2.2. Proiektu bakoitzerako berdintasun irizpide zehatzak adierazi. Hasieratik egitea komeni da eta proiektua gauzatzen den une guztietan:
 - 2.2.1. Irudia diseinatuta, baina proiektua bukatu gabe dagoenean.
 - 2.2.2. Proiektua bukatuta, baina oraindik aprobatu gabe dagoenean, aurreko fasean proposatutakoa ondo adierazita dagoela ziurtatzeko.
 - 2.2.3. Gauzatzen den bitartean, forma hartzen ari denean, han bertan zerbait aldatu behar den ikusteko.
 - 2.2.4. Amaieran, lankidetza emaitzak ikusteko eta elkarrekin ebaluatzeko.
 - 2.3. Proiektua beste alor batzuetako (hezkuntza, kultura, kirola, udaltzaingoa...) eragileei erakutsi, interpretatzen lagundu eta ekarpenak jaso.
 - 2.4. Beste administrazio batzuekin: lankidetza.
3. Lantaldeko kide izango diren eragileak identifikatu: inplikazioa.
 - 3.1. Barruko taldea: udaleko teknikari espezializatuak.
 - 3.2. Kanpoko taldea: erabiltzaileak, eragileak.
4. Eraldaketarako komunikazio eragileak identifikatu: kanpoko taldea, haurrak...
5. Neurketa: lehenago eta ondoren.

Irizpide-teknikoak

1. Mugikortasuna:
 - 1.1. Oinezkoentzako guneak handitu eta ibilgailuentzako guneak murriztu.
 - 1.2. Bizikletan egiten den mugikortasuna gehitu.
2. Ingurumena:
 - 2.1. Energia kontsumoa: energia fosilen kontsumoa murriztu. Energia sortu iturri berriztagarriekin. O kontsumoko eraikinak eta toki publikoak sortu.
 - 2.2. Uraren zikloa errespetatu: materialak hautatu. Euri-urak. Ura berrerabiltzea.
3. Irisgarritasun unibertsala.
4. Materialak: espazioarekiko eta erakusketarekiko egokitasuna. Iraunkortasuna. Berrerabilera.
5. Azpiegituren beharra.
6. Mantentze-irizpideak.
7. Kalitatea, irudia eta proportzionaltasuna kostuarekiko.

Irizpide guzti hauek taula formatuan jar daitezke. Horrek aukera ematen du, laburbilduta, begi bistan edukitzeko eta ideia nagusiak biltzeko, betetzen al da? bai/ez baino haratago. Eta, aldi berean, ez gara xehetasunetan galduko eta ez dugu begirada orokorra galduko.

3. Turismoa

1 NONDIK ABIATU

Zehaztutako diagnosi batetik abiatu. Oso tokiko begirada eta globala ere duen diagnosis

Helmuga turistiko baten berezitasunak lantzeko eta turismo eredu osasuntsu bat proposatzeko garaian, baliabide naturalak zaintzeaz gainera arreta berezia eskaini behar zaie baliabide kulturei. Ariketa horretan, elementu historiko eta kulturalak aintzat hartzea beharrezkoa da helmuga turistikoari buruzko kontakizun bat osatzeko. Modu horretan, lortzen da herriko historia eta baliabide kulturalak eskaintza turistikoaren lehen lerroan jartzea, eta herritarrei eta bisitariei herriaren nortasuna, iragana eta izana ezagutzeko gakoak ematea.

Edonola ere, oro har, ondarean eta historian murgiltzen garenean, normalean beti gizonezkoen ikuspuntutik jorratzen da iragana, eta kontaketa horretan ikusezin geratzen dira gizonak ez diren beste guztiak. Zuzeneko iturrietara joz gero berdin gertatzen da: historia liburu orokorre ez dute jasotzen *mainstream*-az kanpoko kontakizunik, eta ikerlariengana jo beharra dago kontakizun hori jasotzeko.

Hutsune horretaz jabetzeko, eta emakumeek historian egindako ekarpena bistaratzeko, beharrezkoa da ondare hori modu egokian transmitituko duen ibilbide bat egitea. Historian eta ondarea kontatzerako orduan, lehenengo pauso bat da ohartaraztea ezkutuan pertsonaia asko daudela. Emakumeak bakarrik ez, gutxiengo diren beste kolektibo batzuen pertsonaia izan daitezke (pertsona arrazializatuak, LGTBIQ+, kolektibo prekarizatuak...).

Bereziki garrantzitsua da gazteen eta ikasleen inplikazioa bilatzea. Onuragarria da haiek proiektuaren parte sentitzea, bere egitea. Hasieran, konturatzea historia ofiziala gizonek idatzi dutela, eta, oro har, gizonak hartzen dituela kontuan. Ondoren, historiari eta ondareari horren ekarpen baliotsua egin dioten pertsonaien aztarnak jasotzea. Egokia litzateke DBHko ikasleen artean (14-16 urte artean) egitea proiektua, haiek dagoeneko badutelako historia irakasgai bat.

Ikastetxeak inplikatzeko ere behar-beharrezkoa da; proiektua, hasiera batean behintzat, ikastetxeetan landu dezakete.

Proiektuaren helburua bikoitza da. Alde batetik, ikus daitekeen emaitza: herriko ondarean eta historia integral bat islatuko duen ibilbidea, dagokion euskarriekin. Kontakizun horretan txertatuko dira emakumeek egindako ekarpena herriaren historiari eta ondareari.

Bestalde, bigarren helburua ez da horren agerikoa: proiektuan parte hartuko duten ikasleen historia eta gizarteari buruzko ikuspuntua aldatzea da, barneratu dezaten kontaketa historikoa ez dela beti egiten parekidetasun edo ikuspuntu global batetik.

2 ZERTAN ERAGIN

Pentsatu udaletatik zein arlotan eta mailatan eragin daitekeen edo behar den

Iraganean pentsatzeko dugun moduan eragitea da helburua. Orioko historia kontatzen denean, oro har, arrantza baleazaleak, ontziginak eta merkataria etortzen zaizkigu burura. Itsas ondareak utzi digun ondare bakarretarikoak ere figura maskulinoa dute: goi-mailako arraunlariak eta erretegiak parrilleroak.

Ibilbide tematiko horiekin erakutsi nahi da emakumeek egindako ekarpenak zenbaterainoko garrantzia izan duen historiaren bilakaeran. Izan ere, gizonezko arrantzaletan Ternuara balea harrapatzerako joaten zirenean herriko eguneroko marxa eramaten zuten emakumeek. Alegia, herriaren kudeaketa integrala, normalean gizonezkoen ardura zena, emakumeek eramaten zuten.

Horrez gainera, nabarmentzekoa da ordutik sortu den zaintza-sarea; orain gutxi arte eutsi dio, gainera. Arrantzaletan denbora luzez urrutira zihoazenez, eta emakumeek eraman behar zuten herriko kudeaketa, haien artean elkartasun-zaintza sarea sortua zuten. Azkeneko bapoteak (arrantza-ontziak) desagertzen joan diren arte iraun du sare horrek. Arrantzaletan seme-alabak eta menpekotasuna duten beste kideak zaintzeko familien artean txandakatzen ziren. Haur multzoka, familia baten etxetik beste baten etxera ibiltzen ziren. Adin desberdineko haurrak ibiltzen ziren hara eta hona gizonak itsasoan zeuden bitartean.

3 ZER LORTZEKO

Bilatutako eragina zehazki definitzea

Helburua da emakumeek Orioko historian dagokien lekua eta aitortza izatea. Ibilbide tematiko horietan, garrantzitsuak diren herriko puntu horietan panelekin kontatuko da egindako lanketa. Lanketa hori alde aurretik egin beharko da aditu taldearekin.

- Emakumeen historiaren ibilbidea, dagokion seinale, panel eta euskarriekin.
- Herritarrentzat eta bisitariarentzat pentsatuta. Hainbat hizkuntzatan behar du.
- Ikastetxeentzako ibilbidea, historia ezkutuan utzitako emakumeen rola lantzeko.
- Material didaktikoa sortzea, aurrerago erabili ahal izateko beste hainbat helburutarako: esku-orria, webgunerako materiala...

4 ESKU HARTZEA ZEHAZTU**Esku hartzea definitzea**

Lehenengo ariketa izango da aditu taldea sortzea, eta sor daitekeen materialari tamaina eta neurria jartzea. Hortik abiatuta oinarri batzuk eta gida lerro bat aterako litzateke. Gida-lerro hori kontrastatu beharko da gainerako eragileekin: saregile eta hezkuntzako ordezkaria, ikasleak barne. Kontraste horretatik ateratako ondorioekin, lan-saio dinamiko batean eragile guztien artean adostuko da proiektua bere osotasunean: edukiak, lekuak, euskarriak, hizkuntzak eta atera daitezkeen beste ezaugarri teknikoak.

Orioko herriko errealitatera ekarri beharko da oinarri hori: itsas ondarean garrantzia jarri. Tarte nabarmena hartu beharko luke ontzigintzak, arrantzak, arraunak, gastronomiak ... Ardatz horien bueltan ikertu eta islatu beharko luke proiektuak.

Proiektua osatutakoan ere, komunikazio kanpaina indartsu bat beharko litzateke, horren berri emateko. Turismo-bulegoaren komunikazio kanalak ere erabili beharko lirateke, herritik kanpora zabaltzeko.

Martxan jartzeko beharrezko alderdiak definitzea

Ondareari buruzko ibilbideak antolatze, beharrezkoa da hainbat eragileren arteko harremana.

- Orioko Udala, ibilbideen sustatzailea, eta proiektuaren koordinatzailea.
- Saregile: emakumeen etxea. Ikuskaritza lanak, jarritako helburuak ondo betetzen direla bermatzeko.
- Ikastetxeak. Parte hartze proiektu horretan, helburua da hezkuntzako taldeek zuzeneko rola izatea, eta proiektuaren inguruko erabakitze ahalmena izatea. Hezkuntza komunitatea zentzu zabalean ulertu beharko litzateke hemen: haurrak, familiak, irakasleak...
- Aditu talde bat (historialariak): lanak zorrotasun tekniko eta historikoak beteko dituela bermatzeko.
- Kanpo enpresa: ibilbidea egokituko duena, beharrezko materiala eta diseinua.

5 GAUZATU**Gauzatzeko mekanismoak**

Proiektua bera ez da soilik modu integral eta parekide batean udalerriko historia kontuan hartuko duen ibilbide baten sorrera. Alegia, ez da soilik emaitza: emakumeek historian eta ondarean egindako ekarpenak jasoko dituen ibilbide seinaleztatu bat. Proiektua bera martxan jartzeak, eta prozesuan sortuko diren sinergiak eta kontzientzia aldaketak dira helburu.

Aditu taldeak zorrotasun historikoaren ikuspuntutik jarriko ditu mugak, eta muga horien barruan landuko ditu lantaldeak (gazteek osatutako taldeak, irakaslearen koordinaziopean).

Testua eta edukiak finkatuta daudenean, eduki horiek islatzeko ibilbidean islatu behar dira. Horretarako, enpresa pribatu bati enkargatuko zaizkio adostutako euskarriak diseinatzea eta fabrikatzea.

Jarraipena egitea

Ikasleen lantaldeak sortutako emaitzak kontrastatuko dira historiako aditu lantaldearekin. Kontraste eta koordinazio lan horiek egingo ditu udalak.

Emaitza prest dagoenean, eta ibilbidea finkatuta, proiektuak izan duen eragina neurtu behar da. Ikasleengan jarri behar da begirada emaitza horiek ikusteko.

6 EBALUATU ETA SISTEMATIZATU

Bi motako ebaluazioa egin behar da. Alde batetik, ibilbidea berarena. Segimendua egin daiteke hainbat moduetan:

- Euskarrietako QR-etan jasotako bisitetan
- Turismo-bulegoan izandako informazio eskaeratan.
- Hezkuntza komunitatearen feed-back-ean.

Bestalde, proiektuan parte hartu duten ikasleen jarraipena egin beharra dago. Proiektuaren helburua da, alde batetik, parte hartu duten ikasleengan txip aldaketa eragitea, eta ikusaraztea historia-liburuetan eta kontakizun historikoan emakumeen rola gabeziak nolakoak diren. Hezkuntza komunitatearekin batera aztertu beharko da nolako eragina izan duen proiektuan parte hartzeak ikasle horiengan. Horretarako, proiektua bukatu eta epe batera saio dinamiko batzuk egin daitezke, ikusteko ikasleen iritzia eta pertzeptzioa nolako den. Horretarako, komeni da alde aurretik egindako saioekin konparatzea.

4. Kirola

1 NONDIK ABIATU

Kirol arloan, bai entrenatzaileen, bai publikoaren aldetik motibatze edo zuzentzeko erabiltzen diren jarrerak daude, hala nola oihuak, umiliazioak eta irainak. Eta horiek maskulinitate hegemonikoan oinarritutako kirol-kulturaren adierazpenak dira. Kultura mota horrek, oldarkortasuna, presioa eta menperatzea balio positibo gisa naturalizatzen ditu.

Jarrera horiek indarkeria matxistaren adierazpenak dira, eta indarkeria arrazista, lodifobia eta LGTBI+fobiarekin lotuta daude. Kulturalki normalizatuta daude eta oztopatzen dute hezkidetzako harreman osasuntsuak eta bidezkoak eraikitzea kirolean, bereziki, haurtzaroen eta baita nerabezaroen ere, hau da, lehiaketa ofizialak hasten direnean.

2 ZERTAN ERAGIN

Udal mailan, kirola alde batetik, gazteei eta haurrei eskaintzen zaien zerbitzua da klubekin lankidetzan. Bestalde, helburu horretarako erabiltzen diren tokien (kiroldegia, hondartzak, jokalekuak edo zelaia...) kudeaketa dago.

Honen harira, eta gaur egungo lege esparruari erantzuteko (berdintasunaren arloan eta 8/2021 Lege Organikoa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralarena), udalak jar dezake gazteria, kirola, gizarte-zerbitzuak, hirigintza eta berdintasun sailetakoa helburu komun gisa, kirol espazioak harreman osasuntsuetan eta indarkeriarik gabekoetan oinarritutako espazioak direla ziurtatzea.

3 ZER LORTZEKO

Udaleko hainbat klubekin elkarlana bultzatzea harreman osasuntsuen alde egiteko eta portaera bortitzak eta baztertzailerak ezabatze kirol arloan, bereziki, adingabeekin.

- Balio, jarrera eta prozedura esparru komun bat sortzea. Baita jarduketa estrategia bat ere.
- Jarduteko estrategia martxan jartzea.

4 ESKU HARTZEA ZEHATZU

→ Esparru komun bat sortzea:

- Diagnosi partekatua. Kirol-klubak biltzea elkarrekin identifikatzeko eta bultzatu nahi diren balio positiboak bateratzeko, eta horiekin bateraezintzat hartzen diren arrisku-egoerak eta jarrerak ere. Klubek egunerokoan bizi dituzten adibide praktikoetatik eta errealetatik abiatuta.
- Jarduteko estrategia kolektibo bat definitzea:
 - Zein jarrera eta portaera ez dira onartuko tokiko kirolean (jokalariengan, entrenatzaileengan, familiengan eta publikoarengan)
 - Gatazka- edo arrisku-egoera baten aurrean egin beharreko urrats zehatzak: prebentzioa, berehalako erantzuna, ondorengo jarraipena, barnean dauden pertsona bakoitzaren eginkizunak: klubeko arduradunak, entrenatzaileak, delegatuak, arbitroak, administrazio langileak...
 - Pertsona arduradunen arteko egiaztatze eta topatzeko gunea eta praktikan jartzeko taldeko laguntza. Informazio-jarioak eta erakunde parte hartzaileen arteko lotura.

- Konpromiso publikoa: prozesua, gakoak eta jarduteko esparru komuna zabaltzea.
- Taldeko estrategia gauzatzea, administrazioetik, kirol-espazio eta klub bakoitzean eta gizarte mailan.

5 GAUZATU

Esku hartzea martxan jartzea eta prozesua hezkidetzak prestakuntza praktikoa izan dadila, adibide argiekin eta normalizatuarekin kirol eremuan gauzatzen diren jarrera matxistak identifikatzeko, jarrera arrazistekin, lodifobikoekin eta LGTBI+fobikoekin eta botereekin lotuta dauden jarrerak izanik. Baita aukerak sortzeko ere.

6 EBALUATU ETA SISTEMATIZATU

- Jarraipena eta etengabe hobetzea, koordinazio eta topaketa toki bat ezartzen prozesua eta taldeko estrategia ebaluatzeko. Bizipenak, erantzunak eta jakintzak partekatzea.
- Ikasketak eta erronkak jasotzea.

